




DBH 1

POZOIA KOPAN



AUTOREA: P.D. Baccalario & A. Gatti

IZENBURUA: Pozoia kopan

ILUSTRATZAILEA: Effeffestudios

ITZULTZAILEA: Aitor Arana

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Bilbo, Mezulari, 2011

ORRIALDE KOPURUA: 202

BILDUMA: Voltaire kaleko abenturak, 1

ISBN: 978-84-271-3299-3

ADIN TARTEA: 10 urtetik aurrera

IRUZKINA

Voltaire kaleko abenturak deitzen den bildumako lehen alea da hau, misterioak argitzen aritzen diren auzotar batzuen ikerketak kontatzen dira bertan. Izan ere, ikaragarri gustatzen zaizkie polizi nobelak Voltaire kaleko 11. zenbakiko maizterrei eta etxeko auzotarren betiko bilerez kokoteraino daudenez, detektibe klub bat sortu dute. Muturra sartzeko moduko misterioaren bat dagoen bakoitzean, Parisko ikertzailerik



handiena izan omen zen Gustave Darbonen apartamentuan elkartzeko dira zer egin aztertzeko. Han, Barduchon andreak etxean egindako tarta zatiak jan eta esamesak kontatu bitartean ikerketari ekiten diote.

Lehen abentura honetan argitu beharko dute ea egin dituen Deloffre jaunak leporatzen dizkioten bi hilketak.

IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

- Nobela beltza eta intrigazkoaren azterketa literarioa egin liteke: sorrera, izenburu nagusiak eta idazle estimatuena, ezaugarri estilistikoak eta euren bilakaera, ...
 - Ikerketa taldeek gazte literaturaren azpi-atal osatzen dutela eta, azpisail honetan sakondu liteke. Hasiera Bostak (Famous five / Enid Blyton) sailarekin hasi zena, ondoren “Hiru ikertzaileak” (The three Investigators / Robert Arthur) edota “Sei lagunak” (Les six compagnons / Paul-Jacques Bonzon) bildumekin jarraitu zuten. Gaur egun “Lau lagun eta erdi” (4 ^{1/2} freude / Joaquim Friedrich) bezalako bildumak daude.
 - A. C. Doyle, E. A. Poe, A. Christie, ... Bezalako idazleen obran arakatu daiteke. Euren arteko antzekotasun eta aldeak arakatuaz, edota haietako baten obran sakonduaz. Esaterako:
 - A.C. Doyle: Sherlock Holmesen istorioak, 1 (Elkar, 2000) eta 2 (Elkar, 2009), Mundu galdua (Desclee, 1997), Brasilgo katua (Desclee, 2006), ...
 - E. A. Poe: Rue Morgueko hilketak (Elkar, 1996)
 - A. Christie: Asesinato en el Orient Express filma (1974, Sidney Lumet)
 - Eskuarki genero literarioen azterketa egin liteke, intrigazkoak zein leku hartzen duen zehaztu eta besteekiko bereizten duten ezaugarriak bilatu. Hartarako bidean estilo literario nagusietako obren irakurketa eta ondorengo alderaketa proposa liteke.
- Paris, hiria eta hiritarrak. Hiria ezagutzeko ikerketa abia liteke. Bi plano desberdinetan egin liteke, historikoki izan duen garapena, gaur egun duen eraketa.
- Elikadura. Krepeak, elikadura makrobiotikoa, sukaldaritza frantsesa. Narrazioan



LIBURU GAZTEA 2012-2013



zehar agertzen diren elikadurari buruzko erreferentziak erabiliaz sukaldaritzaz aritu daiteke. Sukaldaritza frantziarra ardatz hartuta errezetak landu eta otorduak antola daitezke (esaterako meriendak eskolako haurrentzat edota gurasoentzat).

- Narrazioan zehar familia harremani buruz egiten diren aipamenak erabili daitezke gaia mahai gainean jartzeko. Esaterako etxeko lanen banaketa, arauen ezarpena eta betearaztea noren eginkizuna den etxean, haurrideen arteko sintonia eta konplizitatea.